


AUTORTU...



...ZER DALA-TA?

1916

Euskal Biblioteka Labayru



1016534

RELIGIÓN / N. 222

EGILLE: **Dionisio Borobio.**

EUSKERATZAILLE: Pedro Pujana, "*Kardaberaz Bazkuna*" koa

MARRAZKIAK: J. M. Muñoz.

IRARKOLA: La Editorial Vizcaína, S. A.-Bilbao.

JABE: Secretariado Diocesano de Liturgia
Gran Vía, 7 - Bilbao-1.

ELIZ-BAIMENAKIN.

BILBAO, 1972 - GN URTEKO GARIZUMAN.

Depósito legal: BI-234-1972.

AUTORTU...

...ZER DALA-TA?



**AUTORTZA DALA-TA, ELIZAN GAUR
DAUKAGUZAN GORABERAK
ZEINTZUK ETE DIRA?**

Itaun au ez da guretzat iñoz entzun bakoa izango. Gure artean be noz edo noz egingo genduan bearbada, edo beste batzuei egiten entzun. Urte batzuk lenago bururatu be elitzakigun olakorik egingo. Entzunda bakarrik miretsita edo geldituko gintzakezan. «Autortza sakramentua da —giñoen— eta ezin daikeo iñok ikuturik egin».

Zer dala-ta, ba, orain onenbeste gorabera etorri? Aldi batean sustraiko edo oiñarrikotzat genduzan gauzak izan, eta orain ba dira, ez ba dira ibilli? Zegaitik? Geu, gizonok, aldatu egin ete gara, ba? Len argi-argi ikusten genduzan gauzak orain illundu egin ete jakuz? Gure mundu au ta gure pentsakera ain bestelakoak ete dira? Ala, egia ete da Eliza sakramentuak aldatzeko asmotan dabiliena?

PENTSAKIZUN DOGUN JAZOERA BAT

LENAGO autortzak ugari-ugari izaten ziran. Zapatu arratsalde edo jai bezperan eliza batera joan besterik ez geunkan ori ikusteko. Autor-lekuak jendez gaiñezka

agiri izaten ziran, Jaungoikoagaz eta Elizagaz adiskidetzeko zain egozanakaz bete-bete eginda. Sarritan autortzea, izan bere, kristau zintzoa izateko biderik egokienetako bat zan.

GAUR, barriz, autortzak beerakada aundia izan dabe. Iñoz autor-lekuak eurak be utsik, nok autortu ta nor autortu ez dagoalako. Ikusi be, sarri-sarri autortzea mesedegarri dogunik ez dogu ikusten.

Aldakuntza au Elizaren eta kristau bizikeraren onerako ete da? Jaungoikoak une onetan eskatzen dauskun aurrerakuntza, ori ete da? Ala, atzeraka ete goaz?

GEURE BURUA ZELAN BARRIZTAU

«Barriztau egin bear dogu, barriztau». Orra txitean pitean entzuten dogun esana. Egi-egia da. Orrek ez dau esan nai, baiña, orain arteko oiturak alde batera itxi bear doguzanik. Ezta, izan ditugun elizkizunak alboratu egin bear ditugunik.

BARRIZTAU bearrak zera adierazoten dausku:

- Gure bizikera aztertu.
- Gure eritxi ta egiteak Jaungoikoaren Itzagaz ondo datozen ala ez ikusteko adorea izan.
- Oker dagoana zuzentzeko prest egon, onbidean aurrera gogoz be gogoz egin daigun.

Norbere burua barriztauteko, auxe bear dogu nai ta ez:

- Norbere burua obetu ta obetu egiten joateko asmo sendo ta gurari bizia.
- Ta Kristok gizoni eskeintzen dauksen egiazen billa ta billa aspertu barik alegiñean irautea.

Ez gagoz bakarrik. Eliza daukagu gugaz. Berau dogu bide-erakusle, gizonzkoa dalako ta berau be Kristoren

antzekoa izaten egunean baiño egunean geiago alegintzen dalako. Kristoren egia oso osorik geuregandu dogula uste izan eta orregaitik egon-egon egitea, ori larregi genduke, arrokeria litzateke-ta. Elizak ibilli egin bear dau beti, bidez-bide ibilli ta ibilli. Eliza onen seme-alaba gareanok be, aurrera egin bear dogu beti, egunoro geure burua barriztau ta barriztau egiñaz.

Lege batzuei lotu-lotu eginda bizi izan gara. Ori baleiteke. Legea bete ta nasai, besterik ezer egin bear danik gogoratu barik...

DANA ARGI BAIÑO ARGIAGO EGOALA-TA...!

Orain, ostera, gauzak zerbait illundu egin jakuz. Eta orregaitik edo, askok lege orreik bete be gura ez. Jokaera errezegia, ziur. Ezin, baiña, gizon jator batek ori egin. Gutxiago kristau zintzo dan batek.

Geure barruan gauzok ausnartu egin bear doguz, ausnartu ta aztertu, zelan izan leiteke zan ulertzen alegindu, ta gero barriro asi. Pekatuaren garbaia edo damua zer dan, zelan erakutsi daikegun, orreterako zer egin bear dogun, guzti-guztiok gagoz barriro ikasi bearrean.

Orixe dakarsku liburutxo onek. Argi egiten eta laguntza emoten datorkigu, Autortzako sakramentuaren ederra ta balioa ostera be geureganatu dakiguzan.

MAMIÑA TA AZALA

Elizan aldakuntzak ikusita, ainbeste ta ainbeste «zurtuta» zegaitik dagozan? Erlijiño arloan mamiñekoa zer dan eta azalekoa zer dan ez dakielako.

MAMIÑEKO:

- Kristogandik dator.

- Elizak aldi ta alde guztietan irakatsi izan dau.
- Gauzearen izateari dagokio.
- EZIN DAITEKE ALDATU.

AZALEKOA:

- Ez dagokio gauzearen izateari.
- Egikera edo agerkera da, gauza bat egiteko edo agertzeko era. Ta egikera edo agerkera au aldian aldikoa ta lekuan lekukoa izan oi da, edo noz eta nun dan eta onango beste xeetasun batzuk gogoan izan bear.

- ALDAKOR da, IGAROKOR, GALKOR.

Ez arritu, ba, azaleko direan gauzak aldatu egiten bada. Elizak urtez urte ta gizaldiz gizaldi, bere ustez aldi, bakoitzari dagokion erara azaldu ta irakatsi izan dau mamiñekoa dana. Kristok emona dau orretarako esku-bide. Au dala-ta, Elizak aldi jakin baterako aukeratu dauzan era ta bideak guztiok artu bear doguz aintzat, beronegaz bat eginda bizi gura badogu.

Ta aldi bateko izaera ta pentsaera zelangoa dan ikusita gero, Elizak era ta bideok aldatu be egin daitez, aldi orretako gizonentzat ondo letorkela baderitxo.

Onango aldakuntzak ez doguz egunoro-egunoro ikusten. Baiña gu, bizi be, onangoxe egunetan bizi gara.

Ez daukagu orregaitik zetan miraritu. Oiñarriko ta su-traiko direan gauzak geuregandu ez badoguz, ONEXEK bai kezkatu ta arduratu bear gindukezala. Ori, azaleko dan zerbaitek illundu egin dauzalako izango litzake-ta.

Auxe berau jazo jaku Autortzako sakramentua dala-ta.

Beroni gagokiozala,

ZER ETE DA MAMIÑEKOA TA ZER AZALEKOA?

Au argitu aurretik, zera esan daigun: guztiok gareala pekatari. Gure pekatu au eguneroko bizitzan ainbat bider agertzen jaku: «Gaur neurekoia izan naz, urlia edo berendiagaz zakarra edo gogorregia izan naz», esan oi dogu geure barruan.

Jausi egiten dala-ta beste barik, baiña, ezin daiteke gizona etsipenera amildu. Ezin bere asmo on guztie uko egin. Are gutxiago kristau batek. Gure esku dago obetu al izatea, zuzendu al izatea. Gorago igoko dogun usterik ez dogu galdu bear. Parkatzeko gerturik dagozanak be nun-nai aurki daukeguz gure artean.

Pekatuak adiskidetza urratzen dau, lagun-urkoagaz, Elizagaz eta Jaungoikoagaz daukagun adiskidetza urratu edo apurtu. Jaungoikoa, alan be, beti daukagu prest parkamena emoteko. Zelan? Gauza bat eskatuko dausku orretarako: BIURTU GAITEZELA. Orixe baiño ez.

Ta zelan jakin Jaungoikoak parkatu dauskuna? Ara: gure damua ta biurtzea Elizaren aurrean agertu badoguz eta Elizak sakramentuaren bitartez parkamena emon badausku, orduantxe dakigu ziur Jaungoikoak parkatu dauskuna.

Oiñarriko doguzan jakingarriok gogora ekarrita gero,

ONA ZER DAN MAMIÑEKOA:

- PEKATARI gareala, maitakuntza ukatu dogulako, ta Jaungoikoagaz, Elizagaz eta urkoagaz adiskidetza urratu edo apurtu dogulako.
- Biotzez BIURTU gaitezala, barriro maitasun-bidera etorririk eta Jaungoikoagaz, Elizagaz eta urkoagaz ostera be adiskide izanik.
- Gure biurtze au Elizaren ordezeko diranen aurrean

AGERTU dagigula, damutu gareala agirian erakutsirik.

- JAUNGOIKOAK Kristoren bidez emon dauskun PARKAMENA, Elizaren barruan gagozalako ta beronegaz adiskidetu garealako.
- ONTZEKO ASMOA, edo aurrerantzean pekatuari ta guretzat eta besteentzat okerra danari eten barik gogor egiteko ERABAGIA.

AZALEKOA, BARRIZ, BESTE GUZTI AU LITZAKE:


- Pekatua legea apurtzea baiño ez dala uste izatea, ara ta ona ibiltzen laguntzeko lege-sorta utsa baiño ez bailitzan.
- Barruko sentikizuna edo biotz-eragiña eukitea edo ez eukitea, esate baterako: biotzeko illun-aldia, negar-arpuluak eta onango beste zerak.
- Biotz-barruak barritu doguzala agirian erakusteko era edo bidea, bat baiño geiago izan daitezke-eta.
- Errudun gareala edo gure utsak aoz esateko era.
- Utsegite «guztiak» banaka banaka aitatzea.
- Autortza egin oi dogun lekua, askotarikoa izan daitekela, esaterako: eliza, autor-lekua, etxeke gela, damu-lekua deritxana...
- Pekatuak esaten dautsaguzan entzule edo abadea.
- Parkamena emoteko esan oi diran berbak (aboz-luziñoa).
- Oben-nekea edo «penitentzia betetzea» nasai-nasai gelditzeko asmoz.
- «Pazkozkoa» egitea, agindua bete bear dala-ta beste barik.

Mamiñekoa ta gunekoa dana burutan artuko bagendu, azalekoa danaz orrenbeste kontu egin barik, orduan bai ulertuko gendukela Autortza zetarako dan eta zer egin bear dogun beronen frutua geureganduteko. Legea lege dalako beste barik lege orrek diñoskuna egitea, ori ez genduke guretzat mesedegarri, lege ori gure biotz-barritzearen ezaugarri ta ager-bide danean baiño.

Orduantxe bakarrik esan geinke gure barrua barriztau dogula.

Guzti au dala-ta,

- DAMUA EZ DA ALDATZEN,
DAMU IZATEA EBANJELIO EDO BARRI
ONAREN MAMIN-MAMIÑEKO DA-TA,
BIOTZEZ BIURTZEA SALBAMENA ESKU-
RATZEKO BEAR-BEARREZKO DOGU-TA.
- DAMUA OSPATZEKO ERA, ORI BAI ALDATU
DAITEKE,
ORI ZELAN EGIN, KRISTOK BERE IRA-
KATSIETAN ZEAZTU EZ EBALAKO,
ELIZAK BESTE ERA TA BIDE BATZUK
AUKERATU DAIKEZALAKO.



2

AUTORTZA ZER DAN

EZ DA PEKATUAK ESATEA BAKARRIK

Pekatuak esan bear doguzalako, onexegaitik egiten dautsagu muxin Autortzari. Muker-muker eta abegi txarragaz onexegaitik begirutzen. «Zer dala-ta nik neure pekatuak beste bati esan»? «Zer dala-ta lenagoko zantarkeriak geure kaltez gogora ekarten ibilli»? «Nik au eta bestea egin dodala-ta, iñok ba ete dauko zer ikusirik»? Onango edo antzeko itaunak askotan-edo egin oi dautsaguz gure buruari.

Pekatuak «agertu» bearra berban-berban aitatu izan dogu, eten barik miñean erabilli ta erabilli; sustraikoa ta mamiñekoa dana, barriz, burutik joan jaku.

Ta nastea etorri jaku, AUTORTZA ta PEKATUAK ESATEA gauza bat eta bera bailitzazan.

«Goazen autortzera» esanda, auxe ulertzen dogu: «Goazen pekatuak esatera». Egokiago litzake: «Goazen damua ospatzera» esango bagendu.

Izan be, gure utsak abadeari esatea AUTORTZAREN zati bat baiño ez da. Ta ez urtenena be; len esan dogunez, mamiñekoa BIOTZ-BARRITZEA da-ta.

EZ DA ATSEKABEA DAKARSKUN ZERBAIT

Naigabea ekarri ta gogoia kendu egiten dausku «Autortzak», gure okerren kitugarritzat zigorren bat edo ez-bearren bat leporatu, edo neke-aldi labur edo luze-
ren bat eroan bear dogulako.

Esan be, pekatuak agertuta gero, onantxe esan oi dausku abadeak: «Penitentzian errazau iru agurmari».

Pekatuaren ordain-saria orixe bailitzan. Orregaitik, AUTORTZAK zerbait itxi bearra edo zerbaiti uko egin bearra dakarsku burura.

Autortza, baiña, sakonean BARRUA BARRITZEA da, au da, barriro maitatzea, Jainkoari adi-adi egotea, askatasuna lortzea, pekatuaren buztarritik askatu egiten gaitu-ta. Autortzak, beraz, ba dau pozgarri ta alaigarri dogun alderdi bat.

Biotz-barritzea auxe da, izan: Jainkoa ta urko laguna maite izateak emoten dauskun poza barriro geuregandutea.

PEKATUAREN ETA TXARKERIAREN AURKA GOGOR EGITEKO PREST GAGOZALA ADIERAZOTEN DOGU

Pekatuaren aundia ta zabala zerbait galdu egin doguz. Len gure barrua artegatzen eben gauza askotan ez dogu gaur okerrik ikusten.

Baiña pekatua egon, ortxe dago gaur be. Ortxe, gizonen artean eta erakundeen artean. Norberakeria, atsegin-naikeria, norberagango uste larregia, ikusi-eziña, zapalkuntza, indarkeria, gorrotoa...

Ikusi be, Jaungoikoak Kristo Salbagillearen bitartez eskeintzen dauskun maitasun ori gure arteko artu-
emonetan noz-nai ta nun-nai ikusten dogu ukatua, zapaldua, urratua, geure burua aundi-aundi ta jauntxo bakar egiten dogula.

ORIXE DA, IZAN BE, PEKATUA:

JAINKOARI TA BESTE NOR-NAIRI MAITAKUNTZA UKATZEA.

MAITASUN AU ZAPALDUAZ ZERBAIT NEURETZAT OPA IZATEA.

TA DAMUA OSPATZEA ZERA DA:

- Norbere buruaren aurrez-aurre jarteko adorea izatea, gogoeta arduraz egiteko.
- Urriak, utsak eta mugatuak gareana aintzat artzea.
- Okerreko bidea itxi ta zuzenera etorri bearra.
- Auxe, batez be: pekatuari ta okerkeriari gogor be gogor egiteko gerturik gagozala agertzea, au da, Jainkoa ta urko laguna aintzat artzeko gurari bizia.

JAUNGOIKO ERRUKITSUAGAZ TRIL EGITEN DOGU

Jainkoagana barriro «joateko» gauza bagara, ori Jainkoa Bera lenago geugana «etorri» dalako da, edo Kristo Salbagillearen bitartez berba egin dauskulako. Beronek erosi ta pekatuetatik askatu ginduzan. Eriotzaren eta biztueraren bidez egin be. Ori dala-ta, salbamen-egintza onetako iturrian edan-edan egin daigula opa dau Jaungoikoak. Ta orixe itxaron dau.

JAUNGOIKOAGAZ TRIL EGITEA, Beragazko artu-emonak barritzea da, pekatua izan zala-ta, meetu edo eten egin ziran-eta.

Barriro be Beragan ipinten dogu gure uste guztia, agintzariak zintzoro beteko dituala dakigulako.

Ori bai, bitartekoa erkiña ta xixtriña izaten da: onako, orrako edo arako abadea. Egi-egia.

Baiña jakin, auxe dakigu ziur: Jainkoa gure zain dagoala, maite-maite gaituala. Auxe adierazo gura dogu olako bitarteko edo gizon batengana goazenean.

FEDEDUNEN ALKARTEA DAN ELIZAGAZ BAT EGITEN DOGU

Bateoaren indarrez Elizaren atal egin gintzazan, fede beraren jabe dan alkartearen zati bizi-bizi. Bateoa artu dogun guztiok jagon bear dogu sinismen ori. Alkartearen barruan jagon be.

PEKATU EGIKERAN,

ez bakarrik Kristo baztertu ta Bateoan arturiko fedea oinperatu, Kristoren sinistedunok osotzen dogun alkartetik be iges egiten dogu.

Jainkoaren aurka doakigun pekatu bat, Elizaren aurka be ba doakigu, edo sinismen bat daukagulako ta Bateo ber-bera artu gendualako, Jainkoagaz bat egiten gaituan alkartearen aurka.

Maitasuna oinperatzea, izan be, maitasun orretan zintzo iraun nai dabenak osotzen daben alkartetik alde egitea da, Eukaristia artzeko atzeragarri, Eukaristia au maitasunean bat egiteko afaria da-ta. Ori dala-ta, onan bizi danak ezin lei jaunartu.

DAMUA OSPAKERAN, OSTERA:

- Bateoko sinismenera barriro biurtzen gara.
- fededunen alkarteagaz bat egiten,
- maitasun-bidera etorten,
- ta Eukaristia edo maitasun-afari onetan maikide lez jesarteko gai izaten.

Elizagaz adiskidetu garealako adiskidetzen gara Jainkoaz be. Elizak damoskun parkamena Jaungoikoak damoskunaren agiria da. Onegaitik, urko lagunagaz eta alkarteagaz adiskidetu barik Jaungoikoagaz bakeak egin eta parkamena emon daiskula nai izatea, ori Jainkoaren graziari bidea iztea izango litzake.

Biotz-barritzen gareanean, beraz, sinismen ber-bera dauken anai-arrebakaz eta guztiok osotu daroagun alkarteagaz bat egiten dogu.

Alkarte orretako guztiak dabe zer-ikusia. Gorputzaren atal bat gaixorik dagoanean, gorputz guztia dago gaixorik. Era berean, gorputz-atal bat pozez bada, gorputz guztia poztuten da. Auxe berau ez ete da jazoten, etxe bateko anai bi-edo lenengo asarratu ta bata-besteagandik aldentuta gero, barriro adiskidetu ta bata-besteagaz bakeak egiten dabezenean?



ALDATU TA BARRIZTAU EGITEN GAITU


Pekaturtik «iges egiteko» bidea bakarrik dala uste izan dogu Autortza. Barrua urratzen dauskun «eztan» aundi edo txiki ori ataratea besterik ez. Orregaitik gura izaten dogu pekatu «guztiak» banan-banan aitatu, guzti-guztiak parkatu dakiguzan, arbel-arri baten egindako marrazki ganorabakoak kentzea edo balitz legez. Au dala-ta, «pekatuak ondotxo kontautu» eroateak emoten dausku ardurarik geien.

Zera joan jaku burutik: Autortzea ta biotz-barritzea ez dirala gure gaiztakerien parka-

mena eskuratzeko bakarrik, onetarakoxe be
ba dirala: Jaungoikoaganatzeko, au da, sinis-
men, itxaropen eta maitasunaren argitan ba-
rriro bizitzeko.

Damua ospatuaz, gure bizitza Espirituaren eragiñez
aldatu egiten da, maitasuna, zuzentasuna ta egia geuregan-
duten doguzalako, ta Jainkoak gizonakaz egiñiko Alkar-
tearen barruan irauteko berbea emoten dogulako.





3

DAMU OSPAKUNTZA ZELAN
EGIN DAITEKE ELIZAN?

SAKRAMENTUA BAT BAIÑO EZ

Ona ziur-ziur dakiguzanak:

- **Kristok bere eriotz eta biztueraren bitartez Aitagaz adiskidetu gaitu:**

«Jaungoikoak onantxe erakutsi dau guganako maitakuntza, gu pekatariak izanik, Kristo gure alde il zalako» (Rom. 5,8).

Kristo da gure bakea;

Berak adiskidetu gaitu gizon guztiak Jaungoikoagaz, gurutzearen bidez arerio izateari eriotza emonaz.

Beragu dogu Aitaganako bidez» (Ef. 2,14.16.18).

- **Pekatuen garbaia edo damua irakatsi eban, siñistu ebenei ta biurtu ziran guztiei parkamena emonaz:**

«Joan lotu ezkeru, Jesus Galileara joan zan, Jainkoaren Barri Ona zabalduaz eta esanaz: Aldia

etorri da ta Jainko-Erreiñua gaiñean dozue: biotz-barritu zaiteze ta siñistu Barri Onari» (Mc. 1, 14-15).

«Jesusek, arein sinismena ikusirik, ba diñotso perlesidunari: Seme, parkatu jatzuz pekatuak» (M. 2,5).

«Orregaitik ba diñotsut onen pekatu ugariak parkatuak izan dirala, maite-maite izan dau-ta.

Gutxiago parkatuak gutxiago maite dau. Ta ari (emakumeari) ba diñotso: Parkatu jatzuz pekatuak.

Mai-lagunak euren artean esaten asi ziran: Nor ete dogu berau, pekatuak be parkatu egiten dauz-eta?

Gero emakumeari: Zure sinismenak salbau zaitu: zoaz bakean» (Lc. 4,47-50).

— Fededunen alkargoa dan Elizari emon eutsan pekatuak parkatzeko almena:

«Zure anaiak uts egin badau, zoakioz eta egiozu asarre berari bakarrik.

Entzuten badautsu, zure anaia irabazi dozu.

Entzun ez badagizu, artu egizuz barrero bat edo bi zugaz, bi edo iru testiguren aoz arazoa garbitu daiten.

Jaramonik egiten ez badeutse, esaiozu alkarteari.

Alkarteari be jaramonik egin ez badagio, bekizu erbesteko ta dirubatzaille (errudun) legez.

Egia esan, zuek lurrean lotzen dozuena, zeruan be lotua izango da; ta zuek lurrean askatu dagizuena, zeruen be askatua izango da» (Mt. 18,15-18).

— Parkamen au ez da bein bakarrik emoten, gizona damutu ta biotz-barritzen dan guztietan baiño.

«Orduan Pedrok, urreraturik, onelan esan eutsan:

Jauna, zenbat bider parkatu bear dausat anaiari, utsegiten badaust?

Zazpi bider?

Jesusek dirautso: Zazpi bider bakarrik ez, baita irurogei ta amarreko zazpi bider be» (Mt. 18, 21-22).

Urterik urtera ta gizaldirik gizaldira orixe baiño ez dau Elizak egiten: parkamen-sakramentua emon, Kristok egin eban ber-bera egiñaz.

Orduan Kristo Bera zan parkamen-sakramentu ori. Gaur Eliza ta geu gara. Ta parkamen au Autortzako sakramentuaren bitartez emoten da.

PARKAMENA EMOTEKO TA ARTZEKO ERAK BAT BAIÑO GEIAGO

Gizaldien zear ez da Autortzako sakramentua era berean emon eta artu izan.

Pekatuak parkatzea gura badogu, damuz biotz-barritu egin bear dogula irakatsi eban Kristok. Perlesidunari sinistu ebalako ta Beragan ustea izan ebalako parkatu eutsan; Magdalenari, sinistu ta maite izan ebalako; zerga-batzailleari, bere burua pekataritzat eukirik, apala izan zalako; lapur onari, txarto egiñaz damutu zalako.

Baiña Damu-ospakuntza agirian zelan egin eta pekatuen parkamena zelan jaritxi, ori ez eban Kristok zeaztu. Zer eta zelan egin, Elizaren eskuetan itxi eban. Ta Eliza onek beronek izentau izan dau aldi bakoitzean orretarako bearrezko zana.

Lenengo-lenengotik ez zan leku ta une guztietarako parkabide jakin eta bearrezko bat aukeratu. Ezta guk gaur daukagun erakoa be.

ASIERAN taldeka ta eliz-batzarraren aurrean, batez be, izaten zan onango eginkizuna. Errudun ziranak eliz-alkartetik kanpora urten bearra izaten eben, eta agiriko neke-aldi luze ta gogorra igaro ta gero barriri Elizara etorten. Ta Autortzako sakramentua euren bizialdi guztian bein bakarrik artu al izaten eben.

ZAZPIGARREN GIZALDIAN sortu zan «bakarka» edo norberak bakarrik sakramentua artzeko oiturea, pekatuak ixil-ixilik autor-entzuleari esanaz. Ta ori ez bein bakarrik, norberak opa eban guztietan baiño.

AMASEIGARREN GIZALDIAN, barriz, Trento'ko Batzarrira izan zan, eta orduantxe ebatzi eban Elizak zeatzmeatz damua zelan ospatu bear dogun. Orduan izen-tauriko erara egiten dogu gaur be.

Zelangoa ete da parkabide au? Zer egin bear ete dau pekatariak?

«BAKARKAKO» DAMU-OSPAKUNTZA (1)

Bai. Autortza OSPAKIZUN da.

- Zuzena ta errukiorra dan Jainkoa goratu egiten dogu-ta.
- Pekatari gareala ta Jaungoikoa Salbatzaille dogula agertu egiten dogu-ta.
- Jaungoikoa gurtu egin oi dogu, ta gurgintza au alkarte osoari dagokio-ta.

(1) «Bakarka» diñogu, au da, norberak bakarrik, taldeka edo besteekaz batera egiten dana be ba dalako. Damua ez da berenez «bakarkakoa», edo norberari bakarrik dagokiona, talde guztiari dagokiona baiño. Meza be onangoxea da, alkarte guztiari dagokion zerbeit. Ospakizun dogu, orregaitik taldeka egin bearrekoa. Alderdi au batzuetan illuntxo egon arren.

Kristau-ikasbidetik dakigu «bakarka» Damua ospatzeko zertzuk bear diran.

a) AZTERKETA:

Zera da: Jaungoikoaren, Elizaren eta norbere buruaren aurrean biotza ZABAL-ZABAL egitea, maitasuna dala-ta zintzoro jokatu dogun ala errudun garean ikusteko. Ta oker-egite guztiak zeatz-zeatz eta banan-banan burura ekarteak baiño garrantzi aundiagoa dauko pekatuaren SUSTRAIAK zeintzuk diran jakiteak, edo norberekeria, bidebagekeria, norberango uste larregia eta onango beste erroak noraiñoakoak diran jakiteak, galazo be, oneixek galazoten dauskue-ta Jaungoikoa ta urko laguna maitatzea. Pekatua ta okerra geure barruan dagoz, azaleko egite utsetan baiño areago.

Pekatu guzti-guztiak, bat itxi barik, kontetako urduri izan oi gara batzutan. Ta ori ez izan premiñazkoena. Batzuren batzuk burutik joan bajatzuz, edo zelan agertu ez ba dakizu, ez orregaitik larritu.

Jaungoikoa gure bizitzatik baztertu badogu, edo beste nor-nairi maitasuna ukatu badautsagu, orduantxe egin dogu oker, eta ori zelan izan dan argi ta garbi esatea, ez da askotan errez-erreza izaten.

Azterketa egiteko erarik egokiena, auxe dogu: gure bizikera Jaungoikoaren Itzagaz, au da, Ebanjeliogaz zelan datorren ikusi. Au dala-ta, Jaungoikoaren Berbea entzun eta ausnartu barik, ez genduke sekula be autortu bear.

Lekutan gagoz ori egiteko. Lekutan, gero! Elizara joan, autor-lekuan iñor badagoan begitu, gure barruari gainbegiratu arin bat emon (ta ori betikoak

diran utsegiteak ikusteko) ta, beste barik, or goaz autor-lekura abadeari esateko. Ta gero geure kautan: «Orain ondotxo nago aldi baterako» esanda, patxadaz be patxadaz gagoz.

Benetako azterketa izan ete da ori? Jaungoikoak esana entzun ete dogu?

b) **DAMUA:**

Damua ta BIOTZ-BARRITZEA gauza bat eta bera dira, ots, Jainkoa ta urko laguna barriro maitatzea.

Pekatu egiñaz damutu bearra daukagu, ta pekatuok barruko illun-aldia ta negargurea be emon daikeguez. Baiña ori ez da guztia, biotz-barritzearen alderdi bat besterik ez da.

Alderdi au bakar-bakarrik begiratzea norberekoia izatea litzake. Barruko «goibel-aldirik» ez daukagula-ta, sarritan kezkatu egon izan gara! Ta pekatua Jaungoikoaren aurrean eta urko-lagunarentzat zer dan eta orretan ardura gutxi bearbada, ori burutik joan.

Egiatzko damua daukagunean, pekatuak gorroto izango ditugu, ori bai, baiña berariz eta beste ezer baiño lenago auxe egin bear dogu: Jaungoikoagana-tu, Beronen salbamen-asmoak aintzak arturik, eta urko laguna maitatu.

Autor-entzuleari esan geinkeoz banaka banaka gure pekatu guztiak. Autortu aurretik edo autortza egite orduan damurik izan ezik, alperriko litzake pekatuak esate ori, parkamenik elitzakigu emongo-ta. Orrek ez dau esan gura pekatuak be aitatu bear ez diranik.

Barrutik biurtu al izateko, Jaungoikoak parkatuko dauskun ziurtasuna izan bear dogu, baiña baita parkamen ori Elizak izentau dauan erara esku-ratzeko gogo be.

c) **ONTZEKO ASMOA:**

Barru-barrutik biurtu ezkeru, on-bidean irauteko asmoa be bear-bearrezko dogu. Olantxe erantzungo dautsagu Jaungoikoaren Berbeari. Olantxe erakutsiko Arek gizonakaz egiñiko Alkartean jarraitzeko gogo daugakula. Alkarte au, barritu be, orduantxe barritzen da guban.

Ta barriro Jaungoikoaganatu bagara, ta maitasunak eraginda bizi gura badogu, gure bizitza guztia bestelakotu egingo jaku. Jainkoak Berak damosku orretarako indarra.

Kontu izan, gero, ontzeko asmo ori bizi-babesgarri edo «segurua» dalakotzat artu ez daigun, berez-berez pekatutik gordeko gaitualakotan. Jaungoikoak ez dauku gure argaltasuna kenduko. On egiteko gogo bizia izan ezkeru, akatsak eta utsak ugariak diran arren, ziur egon gaitেকেz salbatuko gareana.

d) **PEKATUAK ESATEA:**

Errundun gareala Elizaren aurrean agertzea, orixe da pekatuak esatea. Eliza onen aurka pekatu egin badogu, gure damua ta beronegaz adiskidetzeko asmoa be beronen aurrean erakutsi bear doguz. Au bidezko da.

Asmo ori, baiña, agirian agertu bear da. Ta agiriko egite ori baiño ez da «aizko autortza». Damn-damu gareana ta Jaungoikoak parkatuko dauskun

ezaupiderik ziurrena, pekatuak apal-apalik autor-tzea da.

Pekatori ta errudun gareana ERA ASKOTARA AGERTU daikegu. Egi-egia. Baiña pekatu guztiak banan-banan eta zeatz-zeatz esateko urduri ta artega egotea, ori ez da ezelan be bearrezko.

«Obeto da berba gutxitan gure bizikerea ta pekatari gareala agertu, aundienak diran bat edo beste pekatu esanaz... Autortza egiteko pekatu guzti-guztiak esatea ez da nai ta ezko. Argi ta garbi aitatu, pekatu astuna bakarrik egin bear dogu.

Ta ori andi-andika. Ez daukagu zetan zeatz-meatz esan» (Holanda'ko Kristau-ikasbidea) (2).

Ez dozu uste izan bear, baiña, autortza artez egiteko «Pekatu egin dot» bakarrik esatea naikoa litzatekenik. Geure-geureak direan pekatuak aitatu egin bear doguz. Elitzateke, bestelan, autortza aztikerizko edo sorginkerizko zerbait izango?

Zeaztasun «guztiak» esateko ardua larregi izan dogu bearbada. Ta au kaltegarri izan dogu, garrantzitsuen ta beiñena dana burutik joan egin jaku-ta.

Obe dogu pekatu guztiak banan-banan esan baiño benetan damatu ta egitan biotz-barritu. Gure egu-notan beste ertzera joateko arriskua daukagu.

Egia da aozko autorza au giza-epaikunde edo juizio baten antzeko dana. Alan da guzti be, ori ez dogu iñor salatzeko egiten, apal-apalik eta zintzoro damu izanaz, NORBERE BURUAGAZ;

(2) Liburu onen txatal batzuk aztartzeko Kardenal-Batzorde bat izentau zan. Batzorde onek ez eutsen ikuturik egin aitaturiko lerro onei. Orregaitik, auxe dala esan geinke gai onetan Elizaren eritxia. Ikus 442 orrial.

JAUNGOIKOAGAZ ETA ELIZAGAZ TRIL EGITEKO baiño. Oridala-ta, autortza ondo egin ezkeru, ez bakarrik pekatuak agertu, gaiñera Jaungoikoa errukitsua ta santua dala, Beronengan gure uste guztia ipinten dogula, Elizaren sinismena ta egi-egitan biurtu gareala erakusten dogu.

e) **OBEN-NEKEA BETE:**

Ez dau esan gura gure okerrakaitik zigorra artu bear dogunik. Ezta «penitentzia bete arte» Jaungoikoak bere parkamena ukatzen dauskunik.


Auxe adierazoten dau: damua ez dala une aretakoa bakarrik, luzatu egiten dala, bizitzako une guztietara luzatu, biotz-barritzea egunoroko zeregiña dogulako.

Ontzeko asmoa ta artu dogun erabagia gomutazoko dauskuz, bide batez. Norberekeria ta pekatuak beste griña makurrak ez dira unetxo batean menperatzen, egunean eguneango ekiñaz eta alegiñaz baiño.

Oben-meke edo penitenti oneitarako asko «barregarriak» dira. Geuk jakiñazo bear geunskio autor-entzuleari zeintzuk diran, gure ustez, on geien egingo leuskiguen penitentiak. Geuk geure buruari ezarten dautsaguzan penitentiak, edo autor-entzuleak izentau oi dauskuzanak, eleukee uskeriak izan bear.

Autortzari dagokiozan zatiok ikusita gero, ez uste izan sakramentu onen frutua, legez eunduriko esi baten barruan edo danik. Bai zera! Frutu ori geure-geurea da, geure barru-barruan sortu oi dana. Agiriko egite guztiok geuri darigun frutu ori adierazo bear dabe, ez agindutakoa bete, «aginduta dagoala ta» beste barik.

Bakarkako autortza egiteko bearrezko diran gauzok arrisku bat dakarskue. Auxe: damua edo autortza ospakizun edo elizkizun dogu, ta onegaitik Jainko-Berbea ta alkartea burutan artu bear doguz. Ta au aaztu egin dakiguke. Zelan aldendu arrisku au?



TALDEKAKO DAMU-OSPAKUNTZA

Jaungoikoagaz-eta adiskidetzeko berariz-berarizko bide bat «taldekako damu-ospakuntza» da. Olako zerbait aitatzen guztiok entzun dogu. Ta iñoz esku artu be bai, bearbada. Era onetako damu-egikizuna Elizak ontzat emoten dau. Zegaitik ete? Zer egiten da olako elizkizunetan? Zer erakusten ete dauskue?

Jakingarriena, auxe da: onango damu-elizkizun bat egiteko jende taldea batzen dala ta guztiak batera ta agirian damua agertzen dabela ta batera parkamena eskatzen, ez batek bakarrik eta ixil-ixilik.

Bai onerako ta bai txarrerako alkarregaz zer-ikusia daukagu, euki be. Pekatua alkartearen aurka badoa, beronegaz apurtu dogulako, damua ta parkamena be ezin daitekez jaritxi alkarte orregaz bat egin barik. Ta ori, Jaungoiko-Berbearen argitan, gure bizitza onexek zuzendu ta argitu bear dau-ta. Egi oneik doguz begien aurre-aurrean onango damu-ospakizunetan.

Beste au be argi dago: Damua ospakizun edo elizkizun dogula, orretarako etorri dan kristau-taldea Kristok ta Elizak emoten dauskun parkamenaren ezaugarria dalako.

ONANGO DAMU-ELIZKIZUNETAN ZER ETA DA BEAR-BEARREZKO?

a) **Sarrera: taldeagaz alkartu**

Andik eta emendik gatoz. Olakoak eta alakoak gara. Batzarra asterakoan, ALKAR AGURTU egiten dogu, buru dogun abadeagaz batera. Guztiok batera zerbait egin bear dogu, sinismenean, itxaropenean eta maitasunean alkartuago egingo gaituan zerbait.

Ez gagoz goibel eta gogo-illun. Ta orregaitik Jaunari KANTAKA asten gara. Ta batzar onetako «buru» Jainkoa dogu-ta, otoitz dagiogu Berari, errukia eskatzen dautsagula.

b) **Itzaren liturjia: Jaungoikoak berba egiten dausku**

IGARLEEK izan eben eginkizunik aundienetariko bat, auxe izan zan: erria oker ebillela iragarri ta biurtu zeitela esan eta esan.

Orixe berori egin eban KRISTOK bere bizialdian. Etorri be, «zintzoei ez, pekatariet dei egiteko etorri zan» (Mc. 2,17).

Egiteko ori ELIZAREN bitartez betetzen da. Jaungoikoak GAUR eta EMENTXE egiten dausku berba, egokiera onetan, batez be. Berak deitzen dausku bide oneratu gaitezcan, barriri maitatzen asi gaitezcan. Pekatuaren okerra ta txarkeria zer dan eta zintzoa izateko zer bear dan Berak azaldu gura dauskuz.

Orretarakoxe dira irakurtaldiak, berbaldia, ausnartze aldia...

c) **Azterketa: gure bizikera Jainko-Berbearen argitan ikusi**

Jaungoiko-Berbearen argitan berariaz eta lenengo-lenengo ikusi bearrekoa, auxe da: JAUNGOIKOARI TA URKO LAGUNARI ZOR DAUTSEGUN MAITASUNA DALA-TA, zelan gabiltzan. Ori ikusiaz gero konturatuko gara egunoroko zeregiñetan besteei ala geure buruari eder egiten diardugun.

Ez goi-goitik ibilli, lurrean oiñik ipiñi barik. Kristau eta gizon gareanez, GAUR eta EMEN, ELIZAN eta GIZARTEAN zer egin dogun ikusi bear dogu.

Zer egin dogun bakarrik ez, ZER EGIN EZ DOGUN be bai.

Batzarreko buru danak emongo dauskuzan argibi-deak lagunduko dauskue arterketa au egiten.

Baiña ausnartu, ikusi ta aztertu, ori geuk egin bear dogu. Ez pekatuak banaka banaka kontatzeko, pekatuon sustraia zein dan jakiteko baiño.

d) **Biotz-barritu: Jaungoikoak aurea artzen dausku**

Biotz-barritze onek eskatzen dauskun guztia zein unetan geuregandu dogun jakin gura geunke, biurtu garean ala ez ziur egoteko. Ezin daitekena da ori. Ezta bearrezko be. Jaungoikoaren Itzari «BAL» esanda erantzun badautsagu, aurrerantzarako asmo zuzena daukagula, orduantxe dakigu Jainkoak besarkatu gaituana ta parkatu dauskuna.

BIURTU AL IZATEA JAUNGOIKOAREN EMOIA DA.

Ta guk dagiguna erkiña ta xixtriña izan arren, biotz zintzoz egin badogu, Kristok Berak osotuko dau.

«DAMU-OTOITZA» («Autortzen dautsat») guztiok batera esaten dogunean, errudun gareala ta damu gareala Elizaren aurean agertzen dogu.

Ori egiteak, biotzez damu izanda, sakramentuaren indarra dauko guretzat eta pekatuak orduantxe parkatzen jakuz. Aozko autortza, orraitio, geroago egin bearko dogu.

e) **Adiskidetu: Jaungoikoak bere Elizan parkatzen dausku**

Elizak parkatzen dauskulako parkatzen dausku Jaungoikoak be. Ta une onetan geuk egin oi dogu

Eliza, batzarrera etorri garean guztiok. Orregaitik, taldeko guztiok eskatzen dogu parkamena, abade zein laiko izan; batzarrekoei ta Jaungoikoari eskatu be.

BATZARREKO ANAIKAZ ADISKIDETU GAREALAKO, JAUNGOIKOAGAZ BE ADISKIDETU GAREAN ZIURTASUNA IZAN GEINKE.

Batez be, auxe dogu agiri-agirian «taldekako damu-ospakuntzan».

Olako elizkizunetan batzartuta dagozan guztiei batera emoten jake askapen edo absoluziñoa. Ta Elizak sakramentutzat edo pekatuen parkabidetzat artu daike olakoetan emon oi dan askapena.

Gaur egun, Autortzako sakramentuaren frutua oso osorik geureganduteko, norberak bere pekatuak abadeari esatea nai ta ezko da.

Une orretan gura-nai gura-ez egin bearrrik ez dago.

Beste egun baten be egin leiteke, obeto datorkigula baderitxogu. Ta onango autortza, taldeka egin genduanaren luzapen eta osagarri genduke, adiskidetzat bete-betea olantxe lorturik.

Bego, orraitio, onako au argi ta garbi: taldekako damu-ospakuntzak **ESAN-GURA SAKON SAKONA TA BERARIZ BERARIZKOA** dauala, ixiliko ta bakarkako autortza egin barik be.

Elizkizun bitartean zein ostein bakarkako autortza egiteko aukera emoten bada, pekatu ariñak zetan esan ez dago. Esan bearrekoak esatea naikoa litzateke.

Abadearen askapen edo absoluziñoa, danik eta laburrena izan arren, Jaungoikoak parkatu daukun agiria da.

f) **Batzarrean artutako erabakia: egunoro biotz-barritu bear**

Parkamena eskuratu dogula-ta, gaiztakeriakaitik kitugarririk eskeiñi barik ez dogu gelditu bear. Ezta geure buruagaz, Elizagaz, gizarteagaz eta politikagaz daukaguzan eginbearrak bete barik, «nasai-nasai» egon be.

Bestera, bai. Egindako okerra ta zuzenbagekeria kentzeko **BEARTU EGITEN GAITU SAKRAMENTUAK**. Baita munduan bizibide ohea izan daigun alegintzeko be, bakez eta maitasunez bizi gaitезan. Olan bai gure egunoroko bizikera eten-bako biurtzea, ots, Ebanjeliok dakarskun egiaruntz epebageko abiada izango litzakela.

Auxe **DARAKUSKU OBEN-NEKE** edo «penitentziak». Otoitz bat (Gure Aita edo) edo taldean arturiko erabagi bat izaten da. Orrek ez dau esan gura geure kabuz be ezin egin daikegunik.

g) Aundia dogu Jaungoikoa, aundia ta errukiorra. Ez ditu bere grazi ta parkamena esku-itxika emoten. Zegaitik epel-epel eta epetan ibilli Berari eskerrak emoteko?

Kristogaz eta Elizagaz bat egin dogulako, Espiritu Santuaren eragiñez barriztau garealako, barriro be pozez beterik asi egiten gara, ostera be itxaron eta itxaron, abesti baten bitartez Jaunari esaten dautsagula: **ESKERRAK ZURI, JAUN ORRI!**

Gutxiago zer? Ez dogu, ba, egunoro-egunoro orixe ber-berori egiten, norbaitek mesederen bat egin ezkeror?

MEZEA EMOKERAN EGIN OI DOGUN DAMU-OSPAKUNTZA

Beste damu-elizkizun bat mezatan egiten doguna da.

Ez dogu esan nai Meza bitartean autor-lekura joan bear dogunik, ori gutxitan egin bear genduke-ta.

Zera adierazo gura dogu: Mezeak be pekatuak parkatu egiten dauskuzala. Auxe da burutik joan jakun Mezearen alderdi aberasgarri bat. Baiña Mezea PARKAMEN eta ADISKIDETASUN-SAKRAMENTUA DALA, ori beti kontuan izan bear genduke. KRISTOK GURUTZEKO ERIOTZAREN BITARTEZ GIZON GUZTIOK JAUNGOIKOAGAZ ADISKIDETU GINDUZAN, ETA, MEZEA EMOKERAN, KRISTOK EGIÑIKO ORI

**oraingotu ta
emengotu egiten jaku,**

MEZATAN GAREAN GUZTIOK KRISTOREN EGIN-TZA ORRETAN ESKU ARTZEN DOGULA, Kristok oraintxe ta ementxe bere erospen-egintza burutuko baleu legez.

*«Artu eizue ta edan guztiok onetatik:
au, neure odolaren kaliza da-ta,
itun barri ta betikoaren odola,
zuentzat eta guztientzat*

PEKATUAK PARKATZEKO isuriko dana.

Egizue au nire oroigarri».

Jakiña, orretarako damua ta biurtzeko asmoa bear doguz izan. Ez jaku, bestelan, pekaturik parkatuko. Mezatara «etorritan» beste barik, ezin parkamen ori jaritxi.

Mezearen ZATI BATZUK gogora badakarguz, berau be DAMU-OSPAKIZUN dala ARGI ikusiko dogu. Gure damu au Jaungoikoaren eta anai-arrebaen aurrean agerturik dogulako, Jaungoikoak Kristoren bidez emoten dauskuzan parkamen eta adiskidetzearen gai egiten gara-ta.

Ikus zeintzuk diran damu-agiri doguzan MEZA-UNEAK:

— **Asierako «damu-egintza»:**

Lenengo, ixil-alditxo bat egin oi dogu, pekatari gareala gogoratuaz. Urrengo, errudun gareala agertzen dogu batzarrekoen aurrean («Autortzen dausat» edo onango zerbait esanda), Jaungoikoari ta anai-arrebei parkamena eskatuaz. Biurtzeko ta adiskidetzeko une egoki-egokia.

— **«Gure Aita»:**

Gogora zelan esaten dogun: «Parkatu gure zorrak geuk bere gure zordunei parkatzen dautsegun ez-kero». Barrutik urtetan ete dausku? Ikus zelan alkarri parkatzea bearrezko dan Jainkoak be parkatu daiskun, baita zelan egia dan alkarri parkatu ezker, Jaungoikoak be parkatuko dauskuna.

— **Bakea emotea:**

Bakea emokeran, gure anaiakaz adiskidetu gareala agirian erakusten dogu, «Gure Aita» esaterakoan aitzen emon genduan legez. Bakea zelan emon ete leiteke parkamena be emon barik? Onelan adiskidetu ezker, jaunartzeko ondo be ondo gertautu gagoz, eta adiskidetzta ori sendotu ta indartu une onetantxe egingo da, Ogi ori janaz, bake-ekarle dogun Kristogaz alkartzen gara-ta.


Ori egitea, Ebanjelioak diñoskuna betetzea da. Entzun:

«Zure oparia eskeintzeko aldare aurrera bazoaz, eta anaiak zure aurka zerbait ba dauala gogora badatorkizu, itxi oparia aldare aurrean eta zoaz anaiagaz bakea egiten... eta gero etorri» (Mt. 5,23-24).

Zerutiko Ogi au ez dogu dongaro artu bear (1 Cor. 11,27). Orregaitik, Elizak gauza batzuk eskatzen dauskuz Jauna artzeko. Gero esango dogu zeintzuk.

Auxe da gauza ziur-ziurra: FEDE BIZIZ ETA BIOTZ ZINTZOZ Mezea eskeintzea, Jaungoikoagaz eta urkoagaz adiskidetzeko BIDE EGOKI-EGOKIA dogula.

Kristok gurutzeko opariaren bidez adiskidetu ginduzan Jaungoikoagaz, eta Mezearen bitartez orixe ber-berori egiten dau. Iñoz damu izatekoan, mezatan gagozanean izan bear dogu. Ta ez uste izan Mezeak Autortzako sakramentuagaz zer ikusirik ez dauanik. Ba dau zer ikusia. Au dala-ta, noz-nai autortzen gareala, orduan naiz geroago, mezatan egiñikoa OSOTU egiten da.



DAMU-ERA TA PARKABIDOK ONTZAT EMON ETE GEINKEZ?

— Ez dira orain asmatutako gauzak:

«Bakarkako» damu-ospakuntzan ezkutuan dagozan alderdi batzuk begien aurrean eta gaillur-gaillurrean ipinten doguz beste damu-erok darabilguzanean.

Leen-gizaldietako kristauak oraindik argiroago era-kusten eben ori. Iru dira, beraz, Damua ospatzeko erak. Irurak zuzenak eta Elizak ontzat emonak.

Iruretan parkatzen dira pekatuak, damu gareala Elizak darakuskun erara ager badadi. Olako era baten be ez dago parkamenik, damurik barik edo azalez bakarrik egon ezkeru.

Talde osoak batera egin oi dauan damu-egintza eta mezatarakoan egin oi doguna, ez dira pekatuen parkamena «merkeago saltzeko» daukagun bide bat.

Ez. Barrutik eta kanpotik sakramentua zer dan obeto agertzen dabe-ta.

— Taldekako damu-ospakuntza dala-ta, «lengo erako» autortza galdu egingo ete da?

Ez, ez da galduko. Nai dauana nai dauan erara autor daiteke. Era biok bata-beste OSOTU egiten dabe.

Norberak bakarrik egin oi dauan autortzak taldean egiten doguna eskatzen dau, ta taldekakoak, barriz, bakarka egin oi doguna.

Egia da, alan be, taldekako damu-elizkizunak sakramentu oni dagokiozan zer batzuk argiroago ipintzen dituana.

— Ez ete dabe, gero, ori abadeak egingo, banaka ez autortze arren?

Ez. Taldekako elizkizunetan be, gura dauana baka-
rriek eta ixilik autortu daiteke. Elizkizun au labu-
rragoa badogu, ori beste gauza batzuk batera egiten
diralako izaten da, baita autor-entzule geiago iza-
ten dalako be. Ez aaztu, bestalde, olako elizkizunak
gertetako orduak eta orduak bear dirana.

BA ETE DA ELIZAN PEKATUENTZAKO BESTE PARKABIDERIK?

Emen esango doguna ulertu al izateko, zera gogoan
artu: gaur egun bai teologoek, bai moral eta artzaintza
arloan jakitun diranak pekatua irutarikoa dala irakasten
dabela: «ariña», «astuna», ta «ilgarria edo erioduna» (1).

Ortik ezin geinke atara, baiña, guk Kristau-Ikasbidean
ikasi genduana, au da, pekatua bitarikoa edo «ariña» ta
«astuna» dala, egiatzat artu bear ez dogunik. Bitarikoa
dala ukatu ez, argitu ta sakondu egiten dogu, ezaguera
argiz eta gogo osoz zerbait noz egin daik egun Teolojiak
eta Sikolojiak argiroago gaur irakasten dabe-ta. Au be
gogoan izan bearreakoa da: noz egin dogun pekatu
«ariña», noz «astuna» noz «ilgarria» ez dogula beti
argi ikusiko.

Au argitu ezker, gorago egindako itaunari onelan
erantzun deikeogu:

— Txikarrago diran pekatu «ariñentzat»:

Pekatu txikarrak parkatzeko bide asko dira. Elizak
beti irakatsi izan dau ori. Pekatu txikar-ariña dala-ta,
goi-maitasuna gutxitu edo epeldu egin oi jaku, ori
bai, baiña Jaungoikoagazko ta Elizagazko artu-
emonak apurtu edo urratu aundia egin, olakorik ez.

(1) Ikus, esate baterako, onako liburuan irakasten dana: «La Penitencia
y el sacramento de la Penitencia en la Iglesia actual». Alemania'ko Got-
zain-Batzordeak argitara emona: Matthias Grünewald-Verlag, Mainz,
1970, pp. 26-28).

Pekatuok parkatzeko bide batzuk oneixek dira:
maitasun-egintzak, otoitza, Jainkoaren Berbea fedez
irakurtea edo entzutea, sakramentuak artzea ta,
batez be, Eukaristia, beronen damu-egintzan tar-
teko izanik, garizuma aldiko eginkizunak, baraua,
limosna egitea...

Orregaitik, ELIZAK EZ GAITU PEKATU TXIKA-
RROK ESATERA BEARTZEN. Geure eskuan dau-
kagu autortu edo ez autortu. Noz edo noz autortzea,
orraitio, mesedegarri litzakigu. Mesedegarrien be
bai, ziurkiro. Baiña pekatuok autortu, ez daukagu
zetan autortu, ori parkamena jaristeko bide BAT
baiño ez da-ta.

— Astunago edo «astunak» diran pekatu ari- ñentzat:

Gure bizitzako eginkizunik beiñena alboratu, au da,
Jainkoa ta maitakuntza zearo baztertu, ori ez dau
pekatu ariñak egiten. Baiña pekatuon artean,
batzuk astunago dira beste batzuk baiño. Zeintzuk?

- a) gauzea berez ariña izan arren, ezaguera argiz
eta gogo osoz okerra dagigunean;
- b) gauzea berez astuna izan arren, makal eta in-
dargak garealako pekatu dagigunean, baiña
sinismena ta maitasuna gure bizitzatik guztiz
baztertu barik eta Jaungoikoagaz apurtu barik.

Onango pekatu guztiei «astunak» deritxe, ta adie-
razo, auxe adierazoten dauskue; gauzea ariña naiz
astuna izan arren eta grazi-bizitza kendu ez, SI-
NISMEN ETA MAITASUNARENTZAT KALTEGA-
RRI BE KALTEGARRI dirala.

Pekatuok dirala-ta, gure bizialdiko eginkizun na-
gusia ezin ezelan be burutu. Orregaitik, gorrotau
bearrekoak dira, ta geu BIOTZ-BARRITU egin bear.

Otoitz-aldi bat dala bear-aldi bat dala goi-maitasun-bizitza, elizkizunen bat dala..., gorroto au ta biurtze au erakus badagiguz, orduantxe parkatuko dauskuz. Jaungoikoak. EGOKI BE EGOKI da, orraitio, autortza egiterakoan pekatuok be agertzea, benetan biurtu gareana, pekatua gudan indargatu dana ta Jaungoikoak parkatu dauskuzana argi legoke-ta.

— «Ilgarri» edo eriodun diran pekatuentzat:

Pekatu «ilgarri» edo erioduna, auxe da: JAUNGOIKOA EDO MAITASUNA BAZTERTZEA; sinismen, itxaropen eta goi-maitasunaren eginkizunak ALBORATZEA; gure bizitzako ardatz eta eragille nagusitzat, Jaungoikoa edo maitasuna barik, norberekeria ipintzea, geure burua jauntxo bakar egiñik. Onango biziera edo pentsakeratik sortzen diran egitadak pekatu «ilgarri» edo eriodun dira.

Barru-barrutik BIURTZEN gareanean, Jaungoikoaganatzen edo maitasun-bidera barrero gatozenez, orduantxe parkatzen jakuz olako pekatuak. Ta pekatuok Elizaren aurrean AGERTU BEARREKOAK dira.

Pekatu egiñaz, Jaungoikoagandik eta Elizatik alden-du giñan eta, orregaitik, Autortzaren bidez osterata be Jaungoikoaganatu ta Elizaratu egin bear dogu.

Esan dogunetik auxe atara bear dogu: autortza ez dogula arrapaladan eta betiko pekatuak esanaz egin bear, agindua bete dogula-ta nasai gelditzeko beste barik. ONURAGARRI auxe dogu: naiz norberak bakarrik eta ixilik naiz taldean eta agirian damu-autorkuntza egin, ori barrutik BIURTU garealako, on egiten jarraitzeko asmoa dugulako; maitasunez, itxaropenez eta zuzenbidez jokatzeke gogoa daukagulako... edo JAINKOGANATU garealako egin daigula.



**NOZ ETA NUN AUTORTU
BEAR DOGUN**

**BIOTZ-BARRITZEAK EZ DAUKO
ORDURIK, EZ EGUN JAKIÑIK**

Fedeagaz batera, kristau bizikeran oiñarriko dan zerbait dogu. Ezin geinke esan: «Orain sinistu, gero bapez».

Damua dala-ta be, ezin esan: «Orain biurtu egingo naz, ordua etorri da-ta; geroago aaztu egingo jat, ordu au joango da-ta».

**EGUNORO TA ORDUORO BIURTU BEARREAN
GAGOZ, PEKATARI TA KAXKAR GARA-TA.**

Une guztietan ori buruan dogula be ezin gaitekez bizi.

Ori ez. Baiña etxean, lantokian, jolas-lekuan egunoro egiten ditugun utsak eta gure bizikera okerra, nok ez ditu ikusten?

Konturatu be, askotan konturatzen gara. Orregaitik esaten dogu geure barruan: «au enuekean egin bear»,

edo «beste ori enukean olan egin bear». Eta, igarri barik, olakorik barrero ez egiteko erabagia artzen dogu.

Maitasuna gidaritzat artzen dauan fededuna izan ezkerro, olakoetan DAMUTU egiten gara, biurtu. Orixe da, izan be, Jainkoari eskeintzen dautsagun egunoroko oparia, «biotz-urratuaren» oparia. Ta opari au, Kristok Eukaristian egiten dauanaz batera, pekatuen parkabide dogu, Kristok gurutzearen bitartez irabaziriko adis-kidetza Eukaristiak oraingo ta emengo egin daroa-ta.

Onango une edo momentuak autortzagaz be zer-ikusi andia dabe. Ara: Noz edo noz elizara goaz barrua aztertu, damutu... ta pekatuak esateko. Gure bizitzako une areitan egiten doguna ta elizara goazenean dagi-guna, gauza bat eta ber-bera dira: biurtu. Ori bai, «elizara goazenean», biotz-barritze ori beste batzuen aurrean agertzen dogu, bizitzako beste damu-aldiok onetaraxe zuzenduaz.

PEKATUAK ESATEKO, OSTERA, BA DA ORDURIK, BAITA EGUN JAKIÑIK

Len esandakoa gogoan dogula, auxe itaundu geinke: Noz autortu bear ete dogu? Ta orain bai erantzun daikegula: «Gaur enoa autortzera, bear dan lez gerturik enago-ta, edo joan bearrik ez daukat-eta, edo beste egun baten egingo dot-eta...» Emen ez dago ezpairik. Geure buruaren JABE gara oso-osorik, geuk ebatzi bear.

Egia da, alan be, «Pazkozkoa» egiteko agindua bakarrik ez dogula burutan artu bear. Ori gutxienez eginbea-rrekoa da, ez gure jokabidea. Damu-eguna urtean bein bakarrik izatea, barregarria litzateke. Jaungoikoari eguna izendatzen! Edo Bera guri mugak eta neurriak ipintzen!

Urtean iru-lau bider gutxienez guztiok AUTORTU BEAR GENDUKE, esate baterako: abendu aldian, garizuma aldian, Pentekostes aldian, jaiegun aundiren bat datorkigunean... Eta, jakiña, olako damu-bidea geure barruak eskatzen dauskun guztietan.

Aitaturiko aldiok eta domeka ta jai bezpera egunak dira egokienak Damua ospatzeko. Euki be, Damuak Kristoren Pazko Misterioaz eta Eukaristiaz zer-ikusi andia dauko, ta misterio oneik aitaturiko egunetan ospatzen dira.

JAUNARTU AURRETIK BETI-BETI AUTORTU BEAR ETE DOGU?

— **Txikarrago diran pekatu «ariñak» bakarrik izan ezkerro:**

Ez da premiñazko. Len esan dogu zegaitik. Biurtu ezkerro, Eukaristiak berak parkatzen dauskuz olako pekatuak. Pekatu ariñak dituala-ta, ez dau iñok Jauna artu barik itxi bear.

— **Astunago edo «astunak» diran pekatu ariñak izan ezkerro:**

Berez ez da bearrezko jaunartu aurretik pekatuok autortzea. Baiña Eukaristiara urreratu baiño len, onango pekatuak autortzeko alegiña egitea, ori egoki-egoki dogu. Pekatuok sinismenarentzat eta maitasunarentzat kaltegarri be kaltegarri badira, onango edozer baztertzeke ta bizitza zuzena eroateko gogo bizia bearrezko dogu.

Ori dala-ta, Eukaristia tajuz ospatu gura badogu, olako pekatuak daukaguzanean, DAMUTU EDO BIOTZ-BARRITU egin bear dogu. Au beti-beti ta BEAR-BEARREZ.

Pekatuak autortzea barruko zintzotasunaren agiria da. Baiña ori ezin baledi, ez gelditu orregaitik jaunartu barik. Beste baten autortu zaitezke.

— **Ilgarri edo eriodun diran pekatuak izan ezkerro:**

Len esan dogunez, autortu zein jaunartu aurretik, nok-nai beti egin bear dauana, auxe da: BIOTZ-BARRITU. Orretan ez dago ezbairik. Ta pekatu egiñaz, Jaungoikoa ta maitakuntza zearo alde batera itxi badoguz, lenengo eginbearra auxe izango dogu:

JAUNGOIKOAGANATU TA MAITASUN-BIDERA ETORRI, gure bizitzako eginkizunik beiñena orixe dalako.

Baiña olako pekatariak, damaturik egon arren be, geien-geienetan beintzat, jaunartu baiño len AUTORTU EGIN BEAR DAU. Pekatu egiterakoan, Elizatik urrundu zan, eta, orregaitik, Eliza onegaz barrero adiskidetu egin bear, ta ori agirian erakutsi.

«...Norbaitek pekatu ilgarri batez bere burua errundun dala ikus badagi, damu-damu dala uste badau bé, ezin lei Eukaristia artzen joan, bere pekatu ori Autortzako sakramentuaren bitartez parkatu barik». «Baiña joan bearrean aurki badadi, ta autor-entzulerik izan ez, joan aurretik maite-damua egin begi» (Instrucción sobre «El misterio eucarístico», n. 35; cfr. Denz. 880; C. I. C., can. 859).

Au gogoan dogularik, eta Jaungoikoak maite daben guztiei bere laguntza eskeintzen 'dautsen ezkerro, ta damaturik dagozanei parkamena emoten, Elizak irakatsia auxe dala esan daikegu:

- norbait pekatu egiñaz egitan eta barru-barrutik damu bada;

- egunoroko zeregiñak dirala-ta, autortzeko as-tirik izan ez ba dau, ta une aretan nogaz autortu ez badauko;

- ainbat lasterren autortzeko gogoia ta asmoa badauz,

- jaunartu bearra daukala uste badau, edozetariko bearra izan arren be,

orduan jaunartzen nasai-nasai joan daiteke. Zenbat bider egin daike ori? Aitatu dogun egoera orretan dagon guztietan. Ez nagikeriagaitik eta olako beste zerbaitegaitik danean, elitzake bene-benetan biur-tuta egongo-ta.

NUN AUTORTU BEAR DOGU?

Gaur egun autor-lekuan egiten da autortza. Orixo da oiturea. Baiña ez da bearrezko. Batzuk illunpean eta ixilik egitea naiago izaten dabe. Beste batzuk, ostera, argitan eta bata-besteagaz izketan egitea gurago dabe.

Era batera zein bestera autortzeko aukera, guztiak izan bear dabe parrokan. Beste gauza askotan legez, onetan be askatasun oso-osoa izan bedi. Ta begirune aundia edozeiñentzat.

Gaur eliza askotan «damu-gela» deritxan lekua dogu. Elizaren alderdi baten izan oi da. Damu-elizkizuna egin nai dabenak ortxe daukez bear diran gauzak: Idazteuna (Biblia), Ebanjelioak, azterketa egiten laguntzeko era bateko ta besteko liburuak, ixil-giroa...

Gaiñera, damu-ospakuntza egiten diarduenak eta ixilik autortzen dagozanak (autor-entzule ta guzti) ez dautse alkarri eragozpenik ipiñiko.

Leku batzuetan, damu-gela onen ondoan beste lan-toki bat izan oi da, ta leku onetan norberak aukeratzen dau

autortza egiteko era. Ez da au bapere arritzekoa, zetara goazen eta zer egin bear dogun jakin ezkeru.

Santuak izateko deia daukagun ezkeru, elburu au geureganduteko adorea izan bear dogu. Era onetara zein aretara izan, Jaunagaz eta Elizagaz tril egiten dogu. Ta, azkenean, Jaunaren agindua beteko da gudan. Onetan ziur gagoz.

«BEGIRATU TA ZENBATU EZIN ALAKO JENDETZA

AGERTU ZAN NIRE BEGIEN AURREAN,
ENDA, JATORRI, ERRI TA IZKERA GUZTIETARIKOAK...

LARRIALDI AUNDITIK ETORRI DIRANAK,
ETA EUREN SOIÑEKOAK BILDOTSAREN ODO-LAZ

GARBITU TA ZURITU DABEZANAK DIRA...»

(Apoc. 7,9.14).

NUN - ZER

Onial.

I.—AUTORTZA DALA-TA, ELIZAN GAUR DAUKAGUZAN GORABERAK ZEINTZUK ETE DIRA?	4
Pentsakizun dogun jazoera bat	5
Geure burua zelan barriztau	6
Mamiña ta azala	7
Autortzari gagokiozala, zer eta da mamiñekoa ta zer azalekoa?	9
II.—AUTORTZA ZER DAN	12
Ez da pekatuak esatea bakarrik.	13
Ez da atsekabea dakarskun zerbait	14
Pekatuaren eta txarkeriaren aurka gogor egiteko prest gagozala adierazoten dogu.	14
Jaungoiko errukitsuagaz tril egiten dogu	15
Fededunen alkatear dan Elizagaz bat egiten dogu	16
Aldatu ta barriztau egiten gaitu	17
III.—DAMU-OSPAKUNTZA ZELAN EGIN DAITEKE ELIZAN?	20
Sakramentua bat baiño ez	21
Parkamena emoteko ta artzeko erak bat baiño geiago.	23
Bakarkako damu-ospakuntza.	24
Taldekako damu-ospakuntza	31
Mezea emokeran egin oi dogun damu-ospakuntza.	35
Damu-era ta parkabideok ontzat emon ete geinkez?	39
Ba eta da Elizan pekatuentzako beste parkabiderik?	40
IV.—NOZ ETA NUN AUTORTU BEAR DOGUN	44
Biotz-barritzeak ez dauko ordurik, ez egun jakiñik	45
Pekatuak esateko, ostera, ba da ordurik, baita egun jakiñik	46
Jaunartu aurretik beti-beti autortu bear ete dogu?	47
Nun autortu bear dogu?.	49

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 13.388.33

Gaia.

Tokia.